



ZESTOAKO UDALA

### **AITORPEN ADIERAZPENA**

1.- Covid – 19aren ondorioz sortutako zaintza beharrei erantzuteko pertsona bat kontratatu dudala ziurtatzen dut eta ez beste inolako arrazoen ondorioz.

2.- Dagozkien Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzari buruzkoak egunean izatea ziurtatzen dut.

3.- Ez nago zigor- eta administrazio-arloan diru-laguntza edo laguntza publikoak lortzeko aukera galtzarekin zigortuta, eta ez nago, halaber, hartarako ezgaitzen duen legezko debekuaren eraginpean, sexu-diskriminazioaren ondoriozko debekuak esanbidez aipatuta, 4/2005 Legearen (otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen arteko berdintasunerako) Azken Xedapenen arteko seigarrenean xedatutakoari jarraiki.

4.- Ez nago sartuta diru-laguntza bat itzultzeko edo hargatik zehapena ezartzeko prozedura batean, hain zuzen ere Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eta beraren erakunde autonomoek ematen dituzten laguntzen esparruan hasi eta oraindik izapidetzen ari den halako prozedura batean.

5.- Ez nago Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13.2 eta 13.3 artikuluetan aurreikusitako gainerako egoeren eraginpean.

6.- Irakurri dut inprimaki hau betetzeko jarraibideak eta aurkeztu beharreko dokumentazioari buruzko eranskinak, eta egiazkoak dira eta ontzat ematen ditut eskabidean bilduta dauden datuak eta eskabideari erantsita doan dokumentazioa.

7.- Laguntza hauen onuradun izateko indarreko legerian ezarritako baldintzak betetzen ditut eta hori egiaztatzen duen dokumentazioa dut; horretaz gain, laguntza baliatzeko denboraldi osoan baldintzak betetzen jarraitzeko konpromisoa hartzen dut.

Egiazkoak dira eta ontzat ematen ditut eskaera honetan jasotako datuak

Arestian aurkeztutako eskaeretan emandako datuak ez dira aldatuko

Ondorengo aldaketak gertatu dira lehenago aurkeztutako eskaeretan jasotako datuetan (familiako kideen kopurua aldatu da, edota kontu korrontea, bizilekua edo helbidea, familiako kideetakoren bat ezintasunen bat badu, eta abar.)

### **KONPROMISOA**

Honen bitartez, sinatzaileak konpromisoa hartzen du, parte hartzen duen moduan eta eskaria aurkeztzen duen deialdiko diru-laguntza jasozer gero, deialdian finkatutako baldintzak eta eskakizunak betetzeko, baita, oinarri horiek betetzen ez baditu, jasotako zenbatekoa itzultzeko ere.

**Tokia eta eguna**

**Sinadura**